


# elkar

NEGUA 2021
66. ZENBAKIA
www.elkar.eus

## JON MAIA

*Kantu bat gara* disko-liburua, herri bat kantu bihurtuta

+

## ALAITZ LECEAGA

*Hasta donde termina el mar*, la novela que recorre Ea

## ALAINE AGIRRE eta LEIRE VARGAS

Irun Hiria Kutxa literatura sarietako irabazleak

## IZEN PROPIOAK:

Lander Garro · Arturo Pérez Reverte · Irati Jimenez · Maria Gorosarri · Joan Mari Torrealdai · Uxue Apaolaza · Hartzea Lopez Arana · Irene Hurtado de Saratxo · Juan Ramon Makuso · Amaia Egidazu · Ruper Ordorika · Katebegiak · Antton Olariaga · Koldo San Sebastian · Josu Barambones · Ainara Azpiazu *Axpi*

8435226183954

IRRIEN LAGUNAK

# Egin IRRIAren HARPIDETZA eta jaso DVDa edo ipuina opari!

Harpidetza egin aurretik aldizkaria ezagutu nahi duzu?
Bete www.irrienlagunak.eus webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.




## NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. (0034) 943-30 43 32ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian







URTEAN 49 euro!

berria ekar Katxiporreta Sustatutako proiektua




AINARA AZPIAZU *AXPI*




Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
flickr elkartaldea
elkar_taldea
elkarTaldea
postdata.elkar.eus

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33






# JON MAIA

**Bertsolari, abeslari eta kantuen letren idazle. Hiru arlo horietan aritzen da Jon Maia Soria. Letragintzan egindako 30 urteko ibilbide oparoaren lagin bat *Kantu bat gara* disko-liburuan jaso du. Uzta horretako hainbat ale aukeratu ditu paperean argitaratzeko –tartean, Negu Gorriak, Ken Zazpi, Gozategi, Anari edota Garirentzat eginiko kanta ezagunak–, eta abesti horietako batzuen bertsioak biltzen dituen diskoarekin osatu du lana. Emaitza "epopeia sentimental bat" da, Xabier Amurizak hitzaurrean dioenez.**




**KANTU BAT GARA**
Jon Maia
ELKAR

**Negu Gorriak-en *Gure jarrera* diskoko letrek 30 urte bete dituztela hartu duzu aitzakiatzat esparru horretan egindako lana biltzeko. Sarri ezkutuan geratzen den letragilearen lanari aitortza egiteko asmoa ere egon da proiektu honen atzean?**
Letragintza nire jarduerarik luzeenetako, konstanteenetako eta lan bolumenaren aldetik handienetako bat da. 18 urterekin hasi nintzen eta gaur egun jarraitzen dut letrak idazten. Nire kasuan, idatzi ditudan letra guztiak propio kantua izateko idatziak izan dira, eta nire taldeentzat (Karidadeko Benta, Hezurbeltzak) egin ditudanak izan ezik, denak enkarguz izan dira. Letra horiek hamaika diskotan sakabanatuta daude, ez daude paperean argitaratuta, eta horren testigantza utzi nahi nuen. Izan ere, genero berezia da letragintza, hibrido bat, eta ez dauka ikusgarritasun zehatz bat. Erdi ezkutuan dago. Horrekin batera, interesgarria iruditu zait letragintzari eta kantuaren formatuari buruzko nire hausnarketak ere jasotzea.



**"Bidaia" izeneko testu-zatian, letragilearen eta musikariaren arteko elkarlanaz zenbait zalantza-galdera agertzen dituzu, eta ondorio gisa zera diozu: "Ni naiz baina bera da, eta bera da baina ni naiz"**

Zuk idazten duzu baina aurpegia berea izango da. Zure mezu, istorio, ideologia eta idazkera estilo horren zabaltzaile, aurpegi, irudi eta ahots bera izango da. Hor dago jolasa: zuk idazten duzu baina berak kantatzeko modukoa izan behar du; bera eroso sentitu behar da zuk idatzi duzunarekin. Ni erabat baldintzatua sentitzen naiz kantugilea nor den, bere musika mota zein den, bere ideologia zein den zentzurik zabalenean, bere estetika zein den, eta saiatzen naiz egokitzen baldintza horietara. Inportanteena ahots propio bat edukitzea da, ez da hainbeste kalitate literarioa; nire letra askok ez dut uste aparteko kalitate literarioa dutenik, ez baitut hori bilatzen letra bat idazten dudanean; bilatzen dut kantuarentzat onena dena, nire ahotsetik eta nire galbahetik pasata.

**"Lehen maiuskulaz idazten nuen nik. Orain gauzak aldatu dira", aitortzen duzu liburuan. Horren adibidea da idatzi duzun azken letra, Hondartzako muxuaren himnoa, zeinean hauxe diozun: "Gaur ez dut kantatu nahi epika, nahiago dut muxu bat hondartzan".**

Kantu asko idatzi ditut gure egoera politikoari lotuak, eta batzuk intentzionalitate guztiz, *Itsasoa gara* kasu. Aro politikoaren aldaketa izan genuenean, pentsatu nuen gertakizun historiko horiek behar dutela girotze bat, bere banda sonoroa, eta kontzientzia horretatik idatzi ditut hainbat. Orain egoera ez da hainbeste maiuskulaz idaztekoa, baizik eta letra txikiarekin eta xehetasun gehiagoz idaztekoa. Lehengo zuri ala beltz hori asko matizatu da, nik ere sentitzen dut hori, gauzak ez ditut hain sinple ikusten, eta nire letretan islatzen da. Oraingo letragintzan ere asko ikusten dut hori, lehen baino



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: GALDER IZAGIRRE

> *"Gu gara kantu bihurtu den herria. Kantuak irauten badu, guk ere iraungo dugu"*

gehiago dira intimoa eta politikoa lotzen dutenak, zeharkako gauza gehiago daude. Lehen gehiago ziren mezu politiko zuzenak.

**"Belatzaren hegaldia" atalean, mendez mende gaurdaino iritsi diren hainbat kantu herrikoi ekarri dituzu gogora, nolabait herri gisa definitzen gaituena kantua dela aldarrikatzeko.**

Hori da nire ideia liburu honetan: kantuaren aldarrikapena egitea eta kantuaren proiekzioa egitea, norbanako zein herri bezala. Gizakiak adierazteko modu bat sortu zuen orain dela milaka urte, eta euskarazko kantua ere milaka urtetatik iritsi zaigu gaur egunera. Galdu ez den formatua da, buztinezko ontziak bezala, aurrehistoriatik datoz eta gaur arte iraun dute. Belatzaren sinbolismoa hartu dut libururako, Zuberoako kantu mota hori niretzat oso iradokitzailea delako. Artzainak belatzaren hegaldia imitatzen zuen ahotsarekin. Hori izugarri ederra da: hegazti baten hegaldia kantu bihurtu daiteke. Magia da. Transformazio hori da niretzat herri honen identitatearen funtsa. Gu gara kantu bihurtu den herria. Berdin du juridikoki edo administratiboki zein formatu dugun, beti izango gara kantu bat. Gure kantuak iraungo du garena garela, eta gure kantuak irauten badu guk ere iraungo dugu.

**Ez zara nonbait liburuarekin ase geratu eta disko bat ere grabatu duzu hainbat kanturen bertsioekin.**

Diskoan nahi nuen artistikoki zerbait aportatu eta horretarako talde bat osatu dut **Pello Ramirez** (biolontxeloa), **Gorka Hermosa** (akordeoia) eta **Nacho Soto**rekin (pianoa). Bakoitzari lauzpabost kantu eman dizkiot eta libre utzi diet nahi duten bertsioa egiten. Niretzat luxuzko talde bat da, eta uste dut musikalki oso bertsio interesgarriak direla. Kanturik ezagunenetako batzuk bildu ditut (*Nirekin*, *Lehenbiziko bala*, *Gora Herria*, *Zaharra zara Bilbo*, *Non geratzen den denbora*, *Itsasoari begira*...) baina denetarik egon dadin saiatu naiz. Eta grabazioan hainbat kantarirekin abestu ahal izateko ohorea izan dut, esaterako **Gari**rekin, **Mikel Urdangarin**ekin, **Aire** Ahizpekin, **Xabier Amuriza**rekin, **Asier Etxeandia**rekin, **Anton Latxa**rekin... Sekulako oparia izan da.

**JON ESKISABEL**
Kazetaria





*Proposamena*

**KOLDO SAN SEBASTIÁN**
Periodista & lector anárquico

# FLORES PARA LEONARD

*El texto es el trueno que después retumba largamente.*
Walter Benjamin

Cuando comencé a leer la poesía de **Leonard Cohen** lo tenía "clasificado" como una especie de rama canadiense de la generación *beat*. Ocasionalmente (pensaba yo) componía canciones para mi admirada **Judy Collins**. Luego, descubrí que comparto con **Joseba Zulaika** afición por la poesía y la música de Cohen, lo que me tranquiliza. Joseba, además de un antropólogo de relevancia internacional, es un notable poeta en lengua vasca. He releído algunos los libros de **Cohen** en tiempo de cuarentena. Muchos de sus textos cobran incluso actualidad. De entre todos, mi favorito sigue siendo *Flores para Hitler*, libro que he releído más veces y que algunos consideran su mejor poemario.

*No sé si el mundo ha mentido / Yo he mentido / Yo no sé si el mundo ha conspirado contra el amor / El clima de tortura no constituye ningún consuelo / Yo he torturado.*

Queda claro pues que, de todo lo que he leído, mi favorito es *Flores para Hitler* que escribió en la década de los 1960, mientras vivía con **Marianne Ilhen** en la pequeña isla griega de Hidra, donde había comprado una casa y experimentaba con drogas. Por detrás de cada verso parece esconderse la inevitable sonrisa del poeta ante un siglo XX bañado en sangre, flores y miseria. El libro causó cierta controversia en Canadá, algunos "críticos" dudaban de la condición de poeta de Cohen.

*El lenguaje ha desaparecido, / estrujado hasta su desaparición en la comida, los besos.*

El volumen, según su autor, podría haberse titulado *Sol para Napoleón* y, antes, *Murallas para Genghis Khan*, pero, al final, optó por el que es. Además, el nombre **Hitler** aparece en dos de los poemas:

*El opio y Hitler / le convencieron / de que el mundo era de cristal/no había cura.*
(el primero)

*Dejadle ahora que duerma con la historia / El verdadero esqueleto que apesta a gasolina, / Sus secuaces Otto y Fritz junto a él: / Dejadles dormir entre nuestras preciosas amapolas.* (el segundo)

Pero, que nadie se equivoque. El libro no va de Hitler. Es un viaje, una "migración", en el que el poeta está acompañado, claro, de Marianne, su musa.

Querido viejo Leonard: ¡cuántas sensaciones distintas producen la lectura de tus versos! Son mucho más que truenos.




**FLORES PARA HITLER**
Leonard Cohen
VISOR

*Profila* PATRICIA HIGHSMITH

# KONTZIENTZIAREN ALDERDI MAKURREN ARAKATZAILEA



**JOSU BARAMBONES**
EHUko irakaslea eta itzultzailea

Hiltzaileak nahiz biktimak, psikopatak eta gauean harrapakin bila zokomiran ibiltzen direnak dagoeneko zaharkiturik geratu dira, horiei buruz beste era batean idazten ez bada behintzat. **Patricia Highsmith**ek irakurleok krimen baten irtenbidearekin nahasi beharrean, bizitza amarrutsuki diseinaturiko tranpa baten gisa ikustera gonbidatzen gaitu. Eta kontakizunaren bilbean barneratu ahala ohartuko gara tranpa horretatik ez dagoela ihesbiderik. **Patricia Highsmith** Forth Worthen, Texasen, jaio zen 1921ean, nahiz eta helduaro gehiena Europan igaro zuen. Bere lehen nobela, *Strangers on a train*, 1950ean plazaratu zuen sei argitaletxek atzera bota ondoren. **Hitchcock**ek zinemara eraman zuen 1951ean, eta horri esker egundoko arrakasta lortu zuen. Hogeita bi liburu eta beste hainbat istorio labur idatzi zituen. Horietatik lau ditugu euskaraz: *Poliki, poliki haizeetan* (**Koro Navarro**k 1988an itzulia), *Ripleyren jokoa* (**Asun Garikano**k 1995ean itzulia), *Ripley trebea* (**Maria Garikano**k 1999an itzulia) eta *Lardaska* (**Josu Barambones**ek 2020an itzulia). Estilo sintaktikoki sinple batean oinarrituta, **Highsmith**ek erakusten digu krimena eguneroko bizitzaren bihotzean izkutatuta aurkitzen dela. Izan ere, **Highsmith**en nobeletako protagonistak zu eta ni bezalako izaki arruntak dira. Obra guztian gailentzen den gai nagusia hau da: elkar ezagutzen ez duten bi gizonen arteko erakarpen homoerotiko bat, bata bestearen zati balitz bezala sentiarazten dituena eta azken buruan erailtzera eramaten dituena, heriotza eta maitasuna askaezinak baitziren bere buruan.

Behin bere maitaleetako bati hau esan omen zion: "Bizitzak delituriк gabe ez dauka zentzurik". Eta fikzioa zen inongo arazotan sartu barik nahi beste delitu egiteko erarik onena. Berak aitortu bezala, gorroto handiarekin bizitzen ikasi zuen, eta horrek hiltzeko sentimenduak izatera bultzatzen zuen. Berarentzat erailtzea misterio bat zen, eta hain juxtu ere ezin zuelako ulertu erakartzen zuen horrenbeste.



BARREN-BARRENEAN



# NOBEDADISMOA

**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Aldaketa aipagarririk edo benetakorik ez dagoenean "zaharrak berri" erantzuteko ohitura dugu euskaraz baina, literaturari dagokionez, liburu zaharrak gutxitan izaten dira berri eta liburu berriak albiste izatea normala den arren, ez nuke esango ona denik horiek izatea irakurtzen ditugun bakarrak. Beste modu batera esanda, gauza bat dira nobedadeak eta beste bat, irakurleentzat eta literaturaren sistemarentzat hain kaltegarria den *nobedadismo* basatia. Nobedadeek dena jatea; memoriarik ez izatea; beteranoekin inoiz ez akordatzea; literaturari buruz hitz egiteko edozer antolatzen dugunean izenak behin eta berriz errepikatzea; literaturaz horrenbeste dakiten aspaldiko lagunak baztertzea; horra zer den *nobedadismoa*.

XIX. mendean, sinbolismoak on handia egin zion literaturari eta XX. mendean berdina gertatu zen surrealismoarekin, baina berria ez den guztia baztertzen duen *ismo* honek antz gehiago du Espainiako *noventayochismo*arekin. Hura bezala da tristea eta hura bezala kaltegarria, harreman zuzena duelako asperdurarekin eta gustuko irakurketak topatzen ez ditugunean sentitzen dugun asperdura da irakurleak hiltzen dituen gaitz nagusia, banidadea den bezala idazleena, eta originaltasuna, kritikoena. Eta irakurleak direnez literaturak gehien behar dituena, sistema literario batek beti saiatu beharko luke irakurzaletasuna sustatzen.

Literaturaren sua bizirik mantentzen duena irakurketa da, azken batean, eta su hori itzali egin daiteke gure irakurketa guztiak apalategi bakarretik badatoz. Batzuk zorte handia izan dugu, etxeko liburutegian oso hautaketa ona suertatu zaigulako. Nik neuk han deskubritu nuen **Harkaitz Cano**k Munduko Poesia Kaierak bildumara ekarri berri duen **Raymond Carver** (Susa, 2020), *Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean* (Alberdania, 2013) tituluak erakarrita. Hor topatu nuen **Edgar Allan Poe**, **Julio Cortazar**ren itzulpenean. Han, *Cien años de soledad* izeneko mirari bat eta hantxe bertan *Pereirak dioenez* (Igela, 2006) izeneko beste bat. Eta liburu dendetako klasikoen sailean agertu ziren gero *Madame Bovary* miragarria; tormenturaino maite dudan **Steinbeck**en *Hiraren mahatsak* monumentala edo **Herman Hesse**ren *El lobo estepario*, liburu arraroen historia bizarroak eman duen ederrenetako bat. Irakurle bezala, liburu horiek dira honaino bizirik ekarri nautenak.

Iraganeko liburu guztiak ahazteko ohiturak estutu egiten du literatura, arima zabaldu beharrean. Eta tradizioaren katebegiak hautsiz, oztopoak jartzen dizkiogu sormenari, eta arriskuan jartzen dugu literatura. Esan nahi dut **Alfonso Sastre** hil zaigula, baina bere literatura bizirik dagoela eta geuri dagokigula bizirik mantentzea. Geuri dagokigun bezala beteranotasuna ez ezik maisutasuna frogatu duten idazleak eta idazle horien literatura irakurtzea, zabaltzea, ulertzea, maitatzea, eta ondo tratatzea. Ahaztu egiten ditugu arbasoak, ahaztu egiten ditugu iraganeko lan bikainak eta idazle handiak. Eta ez hori bakarrik. Ahaztu egiten zaigu **Txomin Peillen**, **Joxe Austin Arrieta** edo **Mikel Lasa** moduko kolosoen artean bizi garela. Suziriak itzali beharrean, hobe genuke arbasoekin akordatuko bagina eta beteranoak ahaztuko ez bagenitu. Eta ez legoke gaizki atzo bertan idatzitako liburu ederrentzako leku bat gordetzea.


ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Niri dagokidanez aitortu behar dut uda baino lehen, berriz irakurri nituela **Gotzon Garate**ren eleberri guztiak eta oroitzen nituen bezain maitagarriak iruditu zitzaizkidala, maitagarriagoak ez bada. Hor dagoena ez dugu zertan ahaztu, ez baitu denborak zikindu. Alderantziz, esango nuke. *Izurri berria* (Elkar, 1984) eta *Alaba* (Elkar, 1984) liburuz-liburu ofizioa menderatzen joan den idazle baten liburu ederrak dira, apaltasunez eta literaturarekiko maitasunez eginda daude eta oraindik orain gure literaturak bere gazteenei eskaintzen dituen onenetakoak.

Gure garaikideek idazten dituztenak munduarekin dugun elkarrizketa aberasten dute baina liburu horiek asebetetzen ez duten gose bat ere badago eta gose horrek beste irakurketa batzuk eskatzen ditu, bizi garen bitartean ez gaitezen asebete. Eta egunen baten literaturaz gosetuta hil gaitezen.

# KARENA
## Izenak izana du




**KARENA**
Alaine Agirre
ELKAR

Izenak izana du. Eta izenei, izanei eta isildutako bizipenei hitza jarri eta leku egin die **Alaine Agirre**k bere azken liburuan. Kulpak, lotsak, eta beldurrak isildutako errealitate bati erraiak zabaldu eta jaio da *Karena*: ama izan nahi eta ezin duen Sararen istorioa, gure inguruan ohikoa izan arren ikusten ez dugun emakume askoren istorioa.

Izenak izana du. Eta oraingoan, estreinakoz **Alaine Agirre**ren pertsonaiek izena ere badute (izana izango zutenik ez nuen duda egiten). Eta esango nuke izenak leku bat eman diela pertsonaiei, leku bat istorioan, leku bat bizitzan, leku bat gure iruditerian.

Istorio oso bat da liburuan kontatzen dena, borobila. Eta era berean, kapitulu askok bere horretan hartu eta hausnarketarako bide ematen dute; hausnarketa, desioez eta nahiez, esaten ez ditugunez, hutsaz, lagunen arteko hizkuntzaz, erantzun ezin diren galderez, kable bidezko isiltasunaz, adiskidetasunaz, itxaroteaz, eraldatzeaz, erruaz, higaduraz, doluaz, besarkadez, mota askotako zilborresteez, sendatzeaz…

Maite dut Alainek hau guztiau kontatzeko duen modua, pertsonaiak, egoerak eta lekuak deskribatzeko duen gaitasuna, kanpoan zein barruan gertatzen den hori zehaztasun miresgarriz kontatzeko duen trebetasuna. Argazkilariak legez, klik! egin eta hitz gutxirekin kokalekuen atmosfera adierazteko berezko trebezia hori. Klik! eta ginekologoaren itxarongela begi kolpe batez ikusaraztea; klik! eta Sara bere sukaldeko zikinkeria nola garbitzen ari den bizitzea; klik! eta Laredoko hondartzara itsasoak ekarri dituen enborrak gainetik pasatzea. Baina are trebeagoa da Alaine, barrura begira jarri eta arakatzearen arakatzeaz barrunbe ezkutuenetan bizi den hori argitara atera eta norberari gertatuko balitzaio legez kontatzen, medikuak bisturia hartu eta pertsonaiarena barik norberaren sabela zabalduko balu bezala, betadine usaina barruraino sartzeraino, ginekologoaren ohatilan hanka zabalik dagoena gu garela sentitzeraino, “zabaldu nazazue eta atera iezadazue” oihu egiteraino.

**Barrura begira jarri eta arakatzearen arakatzeaz barrunbe ezkutuenetan bizi den hori argitara ateratzen du idazleak**

Guzti honen erdian, musika dago Alaineren hitzetan. Melodia bat konposatuko balu bezala idazten du, edo musika entzuten ariko banintz bezala irakurtzen dut nik, ez nago seguru bietako zer den zehazki. Baina gustuko dut hitzek ni eraman nazaten, mantsoago batzuetan, arnasestuka bestetan. Ia oharkabean gertatzen da, baina Alaineren liburuetan gertatzen da.

Eta musikarekin batera, itsasoa ere ekarri digu opari, bere handitasun guztiarekin: itsasoa babes, itsasoa bare, ispilu, besarkada. Itsasoa ekaitz, galerna. Eta beti-beti, itsasoa sendagai.

**DORLETA KORTAZAR**
Ipuin kontalaria

# ZARRATU BEGIAK




**DENA AMETSA DEN IRUDIPENA**
Leire Vargas
ELKAR

Dena ametsa den irudipena edo lurruna ahorik aho negu-egun urdin jelatuetan. Mamorro bat ohepetik burua ateratzen eta sirena-hotsak ebakuazio simulakro masibo bat iragartzen. Igande bat buztana luze astintzen, behegaineko paper mutxikinak bazkatzen dituen bitartean. **Leire Vargas**. Parkeaz haraindi basoa eta mendia ere jolasleku bihurtu gura izan zituena; kantoiko mahaian eserita dagoen munstroarekin kafea hartzen ari dena. Bakardadea desikasteko amaren sabelera itzuliko ei litzatekeen Leire, koadernoa eskuan, barne-batailarik intimo eta politikoenak libratzen.

Erradikal. Kontraesanez eta inertziez, indibidualismoaz, desira eraiki eta deseraikigarriez: "*Desiotik sortzen da/ mundu ikuspegi bat? / Desiratzen duzu –gorputz baten berotasuna desira daitekeen bezala– / hiri ideal bat, jendarte parekide bat, / herri aske bat?*". Garden eta gordin. Harremanekin trafikatzeaz, maiteminaz, norbere burua eta hurkoa eta norbere burua suntsitzeko grinaz. Presentziez. Ausentziaz. Azazkal eta haginez. Hain berea duen egonarriarekin dihardu existentziaren soiltasunaz, nekeaz, onarpenaz: "*zarratu begiak / dastatu akidura / irentsi aitzakia / txikiegiak gara*".

Poema bilduma eder-eder bat, zeure mahaiaren azpiko lur bustiei beha jarriko zaituena; harriei eta orbelei, tulipa zapaldu eta biola sustraituei. Ehunzangoei. Tximeletei. Inurriei. Eta gogorarazpen bital bat: idaztea sendagarria da. Zuhaitzezko kaiola bat barruan nor dagoen, hegaztia ala zeu, kuestionaraziko dizuna edo dena ametsa den irudipena.

**MIREN AMURIZA**
Idazlea



FOTOGRAFÍA: ASIS G. AYERBE

> *"He ambientado la novela en Ea porque conserva su encanto marinero"*

# ALAITZ LECEAGA

**_Hasta donde termina el mar_ es la nueva novela de Alaitz Leceaga (Bilbao, 1982), y ha sido publicada por la editorial Planeta. Se trata de una intriga en la que se mezclan el encanto del pueblo de Ea, las leyendas de la costa de Bizkaia, los secretos familiares, la venganza, y el amor, siempre poderoso. "Nos gustan los misterios porque somos curiosos por naturaleza", afirma la exitosa escritora. Este libro, con toques del gótico inglés, que ha sido reconocido con el Premio Fernando Lara, permitirá a los lectores resolver el misterio junto con los personajes. "Al final, es casi un juego al que nos gusta sumarnos", sostiene.**

**En esta ocasión, ha decidido ambientar su trabajo en su tierra, Bizkaia. ¿Por qué ha elegido Ea como escenario principal?**
Ea es otro de los protagonistas de la historia. Escogí esté pueblo porque mantiene intacto el encanto marinero de la época en la que se desarrolla la novela. Los lectores podrán recorrer las callejuelas estrechas de su casco antiguo hasta su puerto pesquero o asomarse a los acantilados para sentir la fiereza del mar.

**La novela, tras una escena trepidante, arranca con el naufragio del _Annabelle_, el vapor del abuelo de Dylan y Ulises Morgan, dos hermanos bien avenidos, pero de caracteres muy diferentes. ¿Cómo construye sus personajes?**
Me gusta jugar con el simbolismo de los nombres de algunos de los personajes, como es el caso de Ulises, de Moisés y de la protagonista Ofelia. En esta novela todos los personajes evolucionan y se transforman causando la sorpresa de los lectores. No hay ninguno que no guarde un reverso que termine por acercarle al bien o al mal. A pesar de las diferencias entre Dylan y Ulises, los dos formarán, junto con Ofelia, un trío inseparable y tratarán de descubrir quién está detrás de las desapariciones.




**HASTA DONDE TERMINA EL MAR**
Alaitz Leceaga
PLANETA

**La familia, casi como institución, es fundamental en esta novela, ¿verdad?**
Los secretos en el seno de las dos familias protagonistas ponen de manifiesto las riñas y las tensiones entre algunos de sus miembros. Esos conflictos también se verán alimentados por los terribles secretos que se ocultan en ambas casas.

**_Hasta donde termina el mar_ se nutre también de las leyendas vascas: las lamias, por ejemplo, son muy mencionadas. ¿Qué es lo que más le atrae de ese mundo mágico?**
La importancia de la comunidad es uno de los temas principales de la historia. Los pueblos costeros de la zona, por su cercanía y su relación con el mar, son ricos en su propia mitología y dan pie a muchas leyendas, por eso mismo el imaginario colectivo tiene un gran protagonismo en esta novela.

**¿Qué puede contarnos de Cora Amara?**
Cora Amara, igual que otras jóvenes de la zona, lleva años desaparecida. Ofelia, la misteriosa muchacha que aparece en la playa al principio de la novela, es inexplicablemente igual que Cora. El pasado de Ofelia y su relación con Cora Amara, son uno de los pilares de la trama.

**TXANI RODRIGUEZ**
Periodista



# IRENE HURTADO DE SARATXO

**Natalia Ginzburgen *Bertute txikiak* euskarara ekarri du Irene Hurtado de Saratxok. Gaztetan, idazle hori deskubritu zuenean, zirrara berezia eragin zion, eta horregatik proposatu zion Alberdaniako editoreari itzulpena. Ertz andana duen testuaz orriek eskaini dezaketen tarteaz baino luze eta zabalago hitz egin daiteke itzultzailearekin.**



ARGAZKIA: ALBERDANIA

> *“Gai gehienak egun-egungoak iruditzen zaizkit, eta batzuk betierekoak dira”*



**BERTUTE TXIKIAK**
Natalia Ginzburg
ALBERDANIA

**Idazlearen egoera historikoa testuinguruan jartzeko; berezia da sortzeko izan zuen egoera?**
Erabat. Lehen Mundu Gerran jaio zen Palermon, orduan aita –Giuseppe Levi irakasle entzutetsua– hango unibertsitatean lanean ari zelako, baina bera haurtxo bat besterik ez zela familia osoak jo zuen Torinora, aita hiri horretako unibertsitatera eraman baitzuten. Torinoko burgesiako familia ezagunenetako bat bilakatu zen; Mussoliniren erregimena zegoen orduan, eta giro sozialista eta antifaxistetan engaiatu ziren erabat.
Bestalde, aipatu behar da ingurune erabat maskulinoan egon zela murgilduta, ezinbestean orduko Italia hartan, Einaudi argitaletxean aritu baitzen, **Leone Ginzburg** senarrak, **Cesare Pavesek** eta **Giulio Einaudik** sortu zuten horretan; ez da kontu hutsala. Bere garaiko intelektualik handienak zebiltzan inguruan, lagun edo lankide zituen **Pavese, Calvino, Einaudi, Vittorini, Pasolini, Moravia, Sciascia**...

**Askotarikoak dira Gainzburgek jorratzen dituen gaiak, esango zenuke gaurkotasunetik ere irakur daitezkeela freskotasunik galdu gabe?**
Gai gehienak egun-egungoak iruditzen zaizkit, eta batzuk betierekoak dira. Amatasuna eta lana bateratzeko arazoak, seme-alaben zaintzaren inguruko kezkak, haurren heziketa nola antolatu, klase sozialak eta diruak gizartea nola zatitzen duten eta gure bizitza noraino baldintzatzen duten... egungo agendan daudela esango nuke.

**Gai horiek jorratzeko, nolakoa da idazlearen estiloa? Zergatik da berezia edo azpimarratzekoa?**
**Ginzburg**en estiloa laua, xehea, soila da, baina aurrez oso landua eta soildua. Zehaztasunez idazten du, baina ez idor, ez gogor, ez hotz. Epikotasuna baztertu eta ate barruan gertatzen den horri begira dago, arlo pribatuan jartzen du arreta. Sentimentalkeriatik ihes egin, eta esaldi laburrak erabiltzen ditu maiz, adjektibo eta apaingarri gutxikoak, artifizio eta erretorikarik gabekoak, zaplazteko modukoak eman nahian.

**Itzultzailearen ikuspegitik, zeintzuk dira testuak dituen berezitasunak?**
Normalean esaten da **Natalia Ginzburg** ez dela bereziki zaila itzultzeko, beste idazle batzuekin konparatuta. Niri deigarria egin zait estiloa nola aldatzen den kontakizun batzuetatik besteetara: aurrenekoetan esaldi soilduak eta laburragoak, bukaerako saiakeretan, berriz, esaldi luzeagoak eta kateatuagoak, **Paveseri** eskainitako narrazioari darion lirismoa...

**Zergatik uste duzu *Bertute txikiak* liburu berezia dela?**
**Bertute txikiak** liburuan, **Ginzburg**ek hitz egiten digu zorionaren iheskortasunaz, bizitzaren malenkoniaz, egunerokotasunaren ederraz, idazketarekiko maitasunaz… **Ginzburg** gizakiaren gatazka-guneetan murgiltzen da, eta ahalegina egiten du bere lagun **Cesare Pavese** ito zuten behe-lainoetatik ateratzeko.

**LEIRE PALACIOS**
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
https://bit.ly/IreneHurtado






# ARTURO PÉREZ-REVERTE

FOTOGRAFÍA: JEOSM

**_El italiano_ (Alfaguara, 2021) se nutre de guerra, salitre, inquina, hazañas e historia. Vertebran la novela los valores humanos más elementales. Así, detrás de los trajes de buzo, las blusas de librera, las americanas de comandante y las gafas de espía brotan la honestidad, el amor, la amistad, la valentía o la integridad. Mezcla de información rigurosamente documentada y ficción aventurera, el libro es un alegato a favor de las contradicciones, siempre inevitables, a las que están abocadas las personas.**

**Los hechos históricos parecen rigurosos.**
En la II Guerra Mundial, los italianos tenían un barco en Algeciras, una base secreta de la que salían por la noche para cruzar la bahía de Gibraltar y atacar y hundir los barcos ingleses. Y los ingleses nunca supieron en toda la guerra cómo los atacaban. Los hombres que sobrevivieron contaban a sus compañeros cómo les había ido. Yo he tenido acceso a los documentos en los cuales cuentan las incursiones y es algo asombroso: el coraje, las agallas, la decisión, la audacia. He buceado de noche, sé lo que es orientarse en el mar –quien haya buceado sabe a qué me refiero–, y si a eso le añades la guerra, el enemigo que te espera a llegar, las cargas de profundidad, la presión… Eran gente admirable.

**Aquí hay héroes en el bando de los malos, y villanos en el de los buenos.**
*El italiano* es una novela de fronteras como prácticamente todas las mías. Y el héroe de frontera es un héroe siempre ambiguo. *El italiano* intenta responder a estas preguntas: ¿Eres héroe todo el tiempo? ¿Qué ocurre cuando el héroe, después, envejece o se cansa? ¿Qué ocurre cuando por la tarde se emborracha, cuando lo ciega la pasión o el odio? Mi ventaja es que lo mío no es teoría, yo conozco bien a ese tipo de héroes. Y sé que el ser humano puede ser por la mañana un héroe y por la tarde un canalla o al revés. Sé que el mal y el bien están muy mezclados. Todo eso te da un sentimiento ambiguo de la vida, pero real y preciso. Por eso esta novela es de frontera, que es el territorio en el que me muevo. Para bien o para mal es mi mundo.




**EL ITALIANO**
Arturo Pérez-Reverte
ALFAGUARA

**Late el tema de la lealtad.**
El de la lealtad es un tema recurrente en mis novelas. La palabra *lealtad* es la que más me importa. La vida te enseña muchas cosas, eso lo sabe cualquiera que haya vivido un poco: palabras como *dios*, *patria*, *bandera*… pueden ser cuestionadas por la vida, pero hay palabras que la vida te deja intactas, y una de ellas es *lealtad*. Cuando todo se va al diablo, la lealtad –unida al valor, a la dignidad– es la única virtud. Ese conjunto de cosas es lo que hace que el ser humano merezca la pena. Luchar por ideas, por conceptos heroicos o patrióticos siempre implica algo sospechoso en quien maneja esa lucha. Pero cuando se lucha por deber, por tus amigos, por tus vecinos, por lealtad, orgullo o coraje, por honor... es diferente. Siempre me he fiado de los que luchan por esas causas.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa:**
**https://bit.ly/arturoperezreverte**



# LANDER GARRO

**Augustin Zubikarai beka irabazi zuen Lander Garrok iaz, eta lan amaitua dakarkigu orain: *Faith* izeneko nobela mardul bat, non gazte melankoliko baina errebelde batek, sakelak ametsez beterik, fede osoz egin beharko dion aurre atzetik datorkion marrazo erraldoiari.**



ARGAZKIA: MIKELE GARRO

**Zazpi urte igaro dira azken liburua plazaratu zenuenetik, baina sormenari lotutako bestelako lanetan ibili zara bitarte honetan, ezta?**
Bai, urte oso oparoak izan dira, eta zailak ere bai. Errealizadore gisa jardun dut gehienbat, telebistarako lehenik eta zineman ondoren. *Euskalonski* egin nuen telebistan, mundu osoan ibili nintzen bidaiatzen, eta gero dokumentalgintzan murgildu nintzen guztiz. Egin dudan guztia asimilatzeko denboratxo bat beharko dut oraindik!

***Gerra Txikia* zure azken nobela hartako protagonista berreskuratu duzu, Xabi Ugarte, baina beste garai eta beste leku batera eramanda.**
Bai, Bartzelonara eraman dut Xabi Ugarte, 90eko hamarkada amaieran. Dakizun bezala, "aberriaren drama" bizi izan zuen *Gerra txikia*n, eta hortik ihes egin nahian joan da hiri handira. Liburu osoa emango du patuak prestatua dion etorkizunarekin borrokan. Baina hura korapilatu egiten zaio behin eta berriz.

**Galdera tipiko bat: zer du Xabi Ugartek zugandik eta zer da fikzioa nobela honetan?**
Marrubizko perfume batentzat marrubi bat den horixe da Xabi Ugarterentzat Lander Garro. Jatorrian fruitua dago, baina hura xehetu, destilatu, kondentsatu, pausatu eta –beste elementu batzuekin– nahasi beharra dago perfumea ateratzeko. Kasu honetan berdin gertatzen da. Neronek bizi izandako hainbat kontu daude jatorrian, baina manipulaturik, destilaturik eta beste elementu batzuekin nahasirik. Bitxia da, zeren eta zinez gertatu ez zaizkidan gauzak gertatu zaizkidanak baino neureagoak sentitzen ditut.




**FAITH**
Lander Garro
ELKAR

**Argazkilaritzak eta zinemak pisu handia hartzen dute kontakizunean, hain zuzen Ugarte horixe ikastera doalako Bartzelonara…**
Betidanik izan dut artista izateko bokazioa eta ametsa. Obsesiboa izan da nire bizitzan ideia hau. Baina geure herriaren gatazka gehiegitan nahasi izan zait amets hauen bidean. Argazkigintza, literatura eta zinema, hirurak egin ditut, baina ez dakit zinez oraindik nire ahotsa topatu ote dudan. Liburuak horretaz guztiaz dihardu pittin bat.

**Euskal Herriko jazarpen girotik ihesi ere joan da Hiri Handira protagonista, baina poliziaren itzala eta oroimenaren pisua gainetik kendu ezinik ibiliko da.**
Polizia eta jazarpena ezinbesteko elementuak dira liburu honetan, ia artea bezainbat. Protagonistak gauza bat egin nahi du, baina botereak eta boterearen esku armatua den poliziak behin eta berriz beste bide batera eramango dute. Botereak egiten duen indar polizialen erabilera da liburuan jorratu nahi izan dudan gaietako bat. Uste dut boterearen erradiografia egiten laguntzen duela.

**Ugarte agertuko da noizbait beste nobelaren batean, beste garai batean?**
Baliteke, baina ez daukat horretarako plan zehatzik. Oso gustura eta libre sentitu naiz idazten, baina amaierara pittin bat nekaturik iritsi naiz. Beti bezala. Ikusiko dugu.

**XABIER MENDIGUREN**
Editorea



# IRATI JIMENEZ

**Irati Jimenezek (Mundaka, 1977) berriki argitaratu du *Ogia eta zirkua* (Erein), Harkaitz Canoren *Neguko zirkua* narrazio bilduman oinarritutako saiakera literarioa. Bidaia bat proposatu digu idazleak: berezia, magikoa, intrigaz betea.**



ARGAZKIA: IÑIGO AZKONA

**Oso modu magikoan sortu zen liburua hau, ia sukar-amets gisa.**
Gaueko orduetan sortu zen, ohean, nire bikotekidea ondoan lo zegoela. Neguko zirkua hainbatetan irakurrita neukan, baina konturatu gabe nengoen ipuinez ipuin errepikatu egiten zirela hainbat elementu, oso zehatzak. Jantziak, ogia, zirkua. Pentsatu nuen lehen ideia hori telefonoan apuntatzea, ohetik mugitu gabe, berriz lo hartzeko asmoz. Baina azkenean orduak eman nituen telefonoan gauzak apuntatzen, ezin lorik egin. Kontzientziaren ertzean arrakala bat zabaldu zen eta liburu baten barruan beste bat zegoela ikusi nuen.

**Zer deskubritu duzu liburu honetan?**
*Neguko zirkua* ipuin autonomoz osatuta dago baina halako intriga bat sortzen du. Nobela batean bezala hurrengo ipuinak tira egiten dizu, zer gertatzen den jakin nahi bazenu bezala, nahiz eta jakin badakizun hurrengo ipuinak ez duela aurrekoarekin zer ikusirik izango. Nola da posible? Abentura bakar bat kontatzen duela, hori da nire hipotesia, eta abentura hori azaleratzea eta abentura baten gisa kontatzea izan da nire asmoa. Erabaki literarioak ondo hartuta daudenean indar inkontzienteak liberatzen direla erakusten saiatu naiz eta literaturaz gozatzeko inpretazio tresna gustagarri bat egiten.

> *“Kritika literarioa beti egin behar da alde, liburu horren alde ez bada, bai literaturaren alde. Hori falta zaigu askotan”*

***Neguko zirkua*ren analisia da, baina hura irakurri gabe ere irakur daiteke.**
Hori da, bai. Azken batean, saiatu naiz nik neuk irakurriko nukeen liburu bat egiten, beste liburu batzuk irakurtzen segitzeko gogoa emango duena, *Neguko zirkua* irakurrita izan ala ez. Stevensonek lagunentzako idazten saiatzea gomendatzen zuen eta ni saiatu naiz lagunei kontatzen liburu bat zenbat gustatzen zaidan, eta zergatik.

**Beldurra zenuen edo pentsatzen zenuen eragingo zizula Canoren iritziak edo esku hartzeak?**
Harkaitz Canoren iritziari inolako beldurrik gabe idatzi dudala da Harkaitz Canori buruz esan dezakedan gauzarik handienetako bat, irakurleen interpretatzeko libertatean sinesten duelako eta nire interpretazioarekin ados egon ala ez, libertate hori beti defendituko zuelako. Jakinmina nuen erakutsi nionean, igual pudore apur bat ere bai azken momentuan, baina beldurrik ez.




**OGIA ETA ZIRKUA**
Irati Jimenez
EREIN

**Kritika egitea gauza negatiboak esatea dela uste dugun arren, aldeko kritika da zurea.**
Kritika literarioa beti egin behar da alde, liburu horren alde ez bada, bai literaturaren alde. Hori falta zaigu askotan. Gauza negatiboak esateari gorentasun intelektuala eman diogu eta emozionatzeko adorez eskas gabiltza.

**Bukatzeko, Canoren literaturaren jarraitzailea zara. ‘Neguko zirkua’ da zure kuttunetakoa?**
Bai. Harkaitz Canoren onena, nire ustez, eta Sarrionandiaz geroztik egin den ipuin liburuz garaienetakoa, garaiena ez bada.

**Eta ipuinen bat aukeratzea eskatuko banizu, zein aukeratuko zenuke?**
Azkena, *Camarillo Brillo*, bukaera euforiko eta lisergiko bat, liburu oniriko eta poetiko batentzat.

**UXUE RAZQUIN**
Editorea



# MARIA GOROSARRI

**Maria Gorosarri, profesora de la UPV/EHU y autora feminista de fecunda trayectoria, publica un libro largamente meditado, en el que no escapa a su análisis ninguno de los grandes debates abiertos en el movimiento por la liberación de las mujeres, en Euskal Herria y en todo el mundo.**


FOTOGRAFÍA: BEÑAT AIARTZA SANTA CRUZ




**CONTRA LA BANALIZACIÓN DEL FEMINISMO**
Maria Gorosarri
TXERTOA

**¿Qué o quiénes banalizan el feminismo?**
El simple hecho de que nos declaremos feministas nos vincula a un movimiento social, pero eso no implica que cualquier persona que se declare feminista deba ser considerada una voz autorizada. En algunos ambientes, coincidiendo con la relevancia social que el feminismo ha logrado en los últimos años, ha surgido un discurso más personalista, más individualista, sobre la opresión, en lugar de señalar las estructuras en las que se basa la subordinación de las mujeres que nos condena a tener una vida anulada y una muerte posiblemente violenta. Ese discurso incide en la banalización del feminismo.

**¿Por qué es importante no banalizar el feminismo?**
Estamos en un momento histórico de gran apoyo social. Es vital encauzar esa fuerza en blindar los derechos de las mujeres, especialmente, el derecho a una vida libre de violencias. Porque la reacción patriarcal ya está en marcha. Para ello, la praxis feminista exige compromiso en tres niveles: señalar el sexismo y proponer alternativas, fomentar la lucha colectiva y encauzar nuestra vida personal para ganar espacios cotidianos de libertad.

**¿Qué propone?**
Ser feminista implica asumir las consecuencias de ser feminista, es decir, el compromiso de vivir una cotidianidad que señale las injusticias del mandato de género y proponga alternativas. El feminismo, como modo de vida, implica responsabilidad para ser sujeto y combatir la imagen menospreciada de lo que significa socialmente ser mujer. No superaremos la jerarquía sexual si rechazamos la feminidad, los valores atribuidos a las mujeres, porque implicaría asumir que la visión masculina es la correcta.

**Usted, profesora de la UPV/EHU, es "academia", y eso se nota en el rigor con el que está escrito el libro. Pero no está dirigido a la academia…**
Está escrito para que lo pueda leer todo el mundo, lo que no es incompatible con el rigor académico. Se explican todos los conceptos que aparecen y, además, está documentado en una extensa bibliografía, para quien quiera profundizar. Es imprescindible que los libros sobre feminismo no se escriban solo para el debate de una élite.

**Confiesa que el libro es fruto de sus "malestares" ¿La escritura le ha ayudado a mitigarlos? ¿Ha dicho al menos lo que cree que tenía que decir?**
Los años dedicados a escribirlo me han servido para ordenar ideas y articular mi propia perspectiva. Estamos obligadas a hacer las cosas bien, porque jugamos en desventaja. No podemos caer en la trampa de la genealogía estadounidense del feminismo, ni asumir la teoría de los privilegios como cuestiones individuales. Necesitamos sentir que nos movemos hacia los objetivos del feminismo, que no nos dedicamos únicamente a reaccionar ante las constantes agresiones. Creo que buscamos certezas que nos ayuden a construir ese nuevo mundo. Añado también mi investigación sobre medios de comunicación y una crítica a la situación legal de nuestros derechos.

**KARMELE URRUTIA**
Periodista



# HARAGI HOSTO

**Udazkenari begira jarri da Juan Ramon Makuso bere poema-liburu berrian, bakarka ateratzen duen bosgarren honetan. Bizitzaren zikloa du ardatz, zikloaren joan-etorria eta gainbehera: jaio, bizi, hil. Ibilbide horretan unea finkatzeko ahaleginean aritu da bere poemetan.**

*"Udazkenean hostoak hiltzen dira*
*urtaro amaigabe honetan.*
*Isiltasun bortitz bat barneratzen da hirian.*
*Kaiko txalupak geldirik,*
*basamortuko ura nola".*

Eskuetan hartu ditu hostoak, eta dadoak bezala jaurti ditu airera, bidean galdutakoa eta irabazitakoa zenbatzeko asmoz. Ohikoa duen tonu poetiko existentzial eta minimalistarekin, bere barne kezken oihartzuna askatzen doa pixkanaka, koordenada zehatz bezain piktorikoetan. Neguaren aurreko urtaroa dugu udazkena, neguaren atarikoa. Paisaia apurka aldatzen doa, hotzerako prestatzen, gero berriz pizteko. Gizakia paisaiatik desagertzen doa, hostoak bezain errari dabil eguneroko gurpilean, oinazetik pozera, begirada isiletik zurrunbilora daraman garrasira, eta alderantziz. Heriotzarantz doa, baina naturaltasunez onartzen du herioren keinu hori.

*"Zer esan dio larruazalak?*
*Gorputzak ere ez du aditu*
*denboraren joan-etorria,*
*isiltasuna nagusi da ispiluan.*
*Gela hau ezezaguna da.*
*Ez du oihartzunik bere pareten artean,*
*eta gizonaren bakardadea*
*sarerik gabe geratu da etxean.*
*Gela hutsik dago".*

Hustasun horren aurrean, hala ere, poetak keinu egiten dio baikortasunari eta lagun arteari, kantuz jaisten da bizitzara bizi-minaren ardoaren kantua lagun. Horrela bakarrik zula daiteke sarea.




**HARAGI HOSTO**
Juan Ramon Makuso
BALEA ZURIA






# TORREALDAIREN AZKEN LIBURUA: EGUNKARIA

***Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta*** **Joan Mari Torrealdairen azken liburua da. 2020an, zendu zenean, amaitu gabe utzi zuen, eta Joanmari Larrarteri utzi zion enkargua liburua bukatu eta argitara zedin.**

**Joanmari Larrarte**k liburuaren sarreran kontatzen duenez, "libururako atal ia guztiak idatzita, idatzitako testuen gainean egindako ohar mordoa, bi atal eskema moduan eta aurkibide proposamen bat" utzi zizkion, eta haren lana izan da testu horiek zuzentzea eta edizio lana egitea.

**Joan Mari Torrealdai**k *Egunkaria*ren ibilbidea islatu du liburuan, bere bizipenetik abiatuta. Ia-ia hasieratik hartu zuen parte **Torrealdai**k *Egunkaria*n, amaiera arte, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilak itxi zuen arte. Liburuan kontatzen da *Argia*k euskarazko egunkari bat egiteko erabaki zuenetik itxiera eta itxi ondorengo epai-bidea igaro arteko historia. 1988-1989tik hasi eta 2014 arteko tartea dago kontatuta bertan.

Liburuaren hasieran kokatu egiten du irakurlea. Batetik, XX. mendean zehar euskarazko egunkariaren beharraz esandakoak eta egindako ahaleginak biltzen ditu. Bestetik, 80ko hamarkadako giro sozio-politikoa ere azaltzen du eta haren gaineko gogoeta egiten du. Ondoren kontatuko dena ulertzeko baliagarria da, batez ere garai hura bizi izan ez zuenarentzat.

Hortik aurrera, kontaketa dator: *Argia*ren erabakia euskarazko egunkaria sortzeari ekiteko; Egunkaria Sortzen elkartearen sorrera eta lana; *Egunkaria* sortu eta haren garapena; lehen urteetako boikotak eta ondorengo hitzarmenak; 2003 arteko ibilbidea; itxiera eta epaiketarako bidea. 25 urteko ibilbidea.

**Torrealdai**k berak esaten duenez sarreran, ez da *Egunkaria*ren historia kontatzen: "Ez, ez da historia bat, baina argi gera bedi bertan kontatzen diren gertaerak horrela izan zirela, eta hori erakutsiko duten dokumentuak ere badaudela, eta izango dituela eskura hala nahi duenak. Gertatutakoaren egitatea ezin da aldatu; hori hor geratuko da, eta bada nire interesa hori ezagutu dadin. Gertaerak gertaera dira, eta horiek hor daude; gertaeren gainean egingo den interpretazioa, berriz, norberarena da, eta liburu honetakoa nirea, **Joan Mari Torrealdai**rena."




**EGUNKARIA,**
**GIZARTE ZIBILAREN ARRAKASTA**
Joan Mari Torrealdai
BERRIA - ELKAR - JAKIN

## GERTAKIZUNAK ETA GOGOETAK

Ez da soilik kontaketa liburua, bada gogoeta liburua ere. **Torrealdai**k hainbat eta hainbat hausnarketa utzi ditu liburuan zehar, eta horiek asko aberasten dute testua.

Liburu honetan, **Torrealdai**k kontatuta utzi digu herri ekimenetik abiatutako proiektu baten arrakasta. Ikus dezakegu, herri gogoa dagoenean, indarrak bilduta eta lan profesionalarekin uztartuta, edozein ekimen gauza daitekeela.

*Egunkaria*ren prozesua ezagutu ez zuenarentzat liburu oso interesgarria da, hain zuzen ere proiektu baten garapen osoa eta herri indarraren balioa erakusten dituelako. Garaia eta proiektua ezagutu zuenak edo bizi izan zuenak, historia gogoratzeko aukera du, eta berriak izango zaizkion hainbat gertaera ezagutzeko aukera ere izango du.

**IÑAKI X. MEABE**
Kazetaria




ARGAZKIA: TXALAPARTA

# HARTZEA LOPEZ ARANA

**Frantziako Errepublikan eta haren kolonietan 1789tik gaur arte izandako herri borroken berri ematen du Hartzea Lopez Aranak (Brusela, 1970) *Suak eta hautsak. Herri borrokak Frantzian* liburuan (Txalaparta): 1789ko Iraultza, Pariseko Komuna, 68ko Maiatza, Hego Euskal Herriko iheslariei emandako babesa, Jaka Horiak… Dokumentazio lan sakonean oinarrituta, perspektiba historiko zabala eskaintzen du liburuak.**

**Zerk bultzatu zaitu Frantziako eta haren kolonietako herri borrokak aztertzera eta haiei buruzko liburu hau idaztera?**
Kuriositateak, begiruneak eta harridurak, baita ibilbide eta egintza horien guztien ezagutarazteko gogoek ere. 2019an Jaka Horien protesta hasi zelarik, ulertezintasuna sumatu zen euskaldunen artean eta sekuentzia horretatik abiatu nuen idazkia, honako galderarekin: nola da posible, Estatuak jendartea ontsalaz estekatua duen lurraldean, halako astinaldi ustekabea gertatzea? Iraganera jo nuen gero, Frantzian altxamendu herrikoiak noizik behin gertatzen direlako, zuztar propioekin. Esanguratsuenak aipatzeko, 1789ko Iraultza, Pariseko Komuna, 1936ko Fronte Popularra edo 68ko maiatza.

> *“Frantziar herria ez da soilik harropuzkeria edo sumisioa, badugu haiengandik zer begiratu ere”*

**Jaka Horien protestak harritu eta esperantza piztu dizula diozu liburuan. Zer irakaspen utzi du?**
Protagonisten motibazioa eta gobernuaren jokamoldea. Alde batetik, bilera irekiak, biribilguneetan okupazioak eta larunbatero, urte eta erdiz, manifestaldiak eskualde guztietan, ber-politizazio eta matxinada giroetan. Bestetik, aldarrikapenei mespretxua, manipulazio saiakerak eta bortizkeria poliziala eta judizial itzela. Klase sozial herrikoien eta agintari politiko zein ekonomikoen arteko arrakala izan zen bistakoa eta ingurugiro guztietan utzi ditu aztarnak.



**SUAK ETA HAUTSAK**
Hartzea Lopez Arana
TXALAPARTA

**Frantziako borrokez gain haien kolonietakoak ere aztertu dituzu. Zer nabarmenduko zenuke horietatik?**
Kolonietako askapen mugimenduentzat, frantziar iraultzaren goiburuak inspirazio iturri izan ziren euren autodeterminazio proiektuen atontzeko, Vietnam edo Aljeria kasu. Bertakoen, frantziarren eta “munduko zanpatu” guztien ondarea dira eta inperialismoak beste hainbat protesta mugimendu markatzen jarraitzen du, adibidez migrazio politikei edo energia atomikoari dagozkienak. Ipar Euskal Herritik Ozeano Bareko uharteetara, herrien eskakizun abertzaleak beti hor direla ahantzi gabe.

**Norentzat izan daiteke bereziki interesgarri eta baliagarri liburu honen irakurketa?**
Denentzat eta berezikiago historia eta perspektibak argiago ulertu nahi dituztenentzat, hain hurbil eta hain urrun ditugun errealitateetara errazkiago hurbiltzeko. Ez da analisi zurrunez osatu ikerlana, ez eta saiaketa hotz bat ere; molde kronologikoan eta sintetizatuan bildu nahi izan ditut gertakariak eta lekukotasunak, kontakizunean oinarrituz, irakurleak bere irakaspen eta ondorio propioak atera ditzan. Frantziar herriaren ezaugarriak ez direlako soilik harropuzkeria edo sumisioa, badugu haiengandik zer begiratu ere.

**JUAN LUIS ZABALA**
Idazlea

txalaparta

Saiakera
ASKATU EDO MOZTU
Nora Salbotx

JAN ETA JABE
Tasio Erkizia

Komikia | Cómic
JACOB. GAUEKO LANGILEA
JACOB. EL TRABAJADOR DE LA NOCHE
Matz | Chemineau

Biografía
DE PROFESIÓN: ARTISTA
ESKROTO&GAVILÁN
Jesús Pérez Artuch

Investigación
RESIDENCIAS SA
Ahoztar Zelaieta

Guía
RUTAS MITOLÓGICAS VASCAS
Imanol Bueno | Aitor Ventureira








# UXUE APAOLAZA

**Etxean arropa lapurtzera sartu zaizkionak jipoitzen dituen emakume normalean guztiz atsegina, lanetik bota ez dezaten lankide bat sakrifikatzen duen beste bat… *Bihurguneko nasa* (Susa, 2021) irakurtzen duenak berehala igarriko dio Uxue Apaolazaren luma zorrotzari. Gizakion miseria txiki zein handiak erakusten dizkigu.**



ARGAZKIA: SUSA




**BIHURGUNEKO NASA**
Uxue Apaolaza
SUSA

**2005ean argitaratu zenuen *Umeek gezurra esaten dutenetik* (Erein), 2011n *Mea Culpa* (Elkar), eta hamar urte geroago iritsi da hirugarrena. Denbora behar izan duzu berriro ipuinak idazten hasteko?**
Idazten jartzeko ez, baina ez naiz animatu argitaratzen ahalegintzera. Ez baduzu argitaratzeko asmorik, idazten duzu baina ez duzu berdin idazten. Hazia eduki arren, esfortzu gehigarri bat egin behar da ipuina lantzeko, eta horretarako beharrezkoa da norbaitek irakurriko duela eta kokatuko duela jakitea. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua kritikarien lana.

**Bederatzi ipuin biltzen dira liburu honetan, baina denak daude loturik, hiri berean (Madril) eta narratzaile beraren ahotik iristen zaizkigulako. Nolatan erabaki zenuen liburua horrela antolatzea?**
Ipuinen artean loturak baldin badaude, batzuetan bukatu dezakezu justifikatzen narrazio bat, ez ona delako bere horretan, baizik eta, beste honekin eta harako harekin batera, irakurleari zerbait emango diolako. Baina hori nobela bateko kapitulu bat da, ez da ipuin bat. Beraz, lehenik, banaka-banaka landu ditut ipuinak. Unibertso beraren parte dira, baina horrek ez du esan nahi kronologikoki daudenik edo denak irakurri behar direnik.

**Nondik abiatzen zara ipuinak idazteko garaian?**
Zerbaitek ukitzen banau edo mugitzen banau edo haserretzen banau, eta ez badakit ondo konpontzen, horri aurre egiteko modu bat da literatura niretzat. Lehenengo ideia kolpe bat izaten da, eta emozionala hein handi batean. Uste dut literaturak baduela asko emoziotik, baina emozioa lantzen eta aldatzen doa zu aldatzen zaren heinean, eta lanketa horren parte da ipuina. Ez dakar soluziorik, ez dago epikarik –hori beste esparru batzuei dagokie–, baina balio baldin badigu buelta bat emateko gauzei, ba goazen buelta bat ematera. Niretzat egiaren espazioa da literatura, gezurren bidez egia bat esaten dudan lekua da.

> *“Gezurren bitartez egia bat esaten dudan lekua da niretzat literatura”*

**Pertsonaien miseriak eta frustrazioak gordin-gordinik agertzen dira ipuinotan.**
Narratzaileak ez ditu kritikatzen bere taldekoak ez direnak (ez direnak zuriak, Europakoak, heteroak…). Ia dena da autokritika bat. Narratzailea bere buruarekin ere ez da oso jatorra. Ez da moralki super txintxoa. Baina, jakina, autokritika egiten duzunean normalean zure ekipokoak seinalatzen dituzu.
Frustrazioaren harira, uste dut klasearen kontua sartzen dela hor. Klase ertaina garenok edo izan garenok, horko aspirazioekin, langile-klasetik bereizi nahi izatearekin… Horrek frustrazioa bakarrik sortu du. Gu eta gure ondorengoak antsietatearen belaunaldi bat izan gara, bizimolde jakin bat galtzeko beldurrez ibili gara; agian ez genuen aberatsen bizimoldetzat jotzen, baina bai bizimodu kultutzat. Eta denbora batean ez gara konturatu edo ez dugu konturatu nahi izan horretaz.

**DANELE SARRIUGARTE**
Idazlea




DJECO
DJECO
DJECO

elkar fundazioa

# Kultur transmisioa

**Kultura handietan transmisioa naturaltasunez gertatzen da, hezkuntza, hedabideak, liburuak… tresna ugari daude, estatu egiturak dituzte belaunaldiz belaunaldi pasa dadin herri baten izaera eta kultur ezagutza. Kultura txikietan eta batez ere gutxituak direnetan eta estatu egiturak falta dituztenetan, transmisioa ez da erraza eta badirudi belaunaldi bakoitzak beti ezerezetik hasi behar duela, aurretik deus existituko ez balitz bezala.**

Kontua ez da inondik ere aurreko belaunaldiek egindakoari jarraitzea, garai bakoitzak bere gogoeta eta bizipenak baititu, eta horrek berak eskatzen du erantzun propioak izatea. Normala eta erabat zentzuzkoa da hori, beharrezkoa ere bai.

Transmisioak ekarri behar duen ezagutza da, nor garen, zer garen, nondik gatozen eta nola iritsi garen hona, aurrekoek zer egin duten, zein izan den haien ekarpena ezagutzea. Iraganari eta orainari testuingurua ematea etorkizuna eraikitzeko.

Inor ez da abiatzen ezerezetik, denok dugu ezagutza bat aurretik eta ezagutza horretan oinarritzen dugu jarrera, lana, sormena. Euskal kulturan dugun arazoa da askotan ez dugula gure aurrekoa ezagutzen, dena edaten dugula beste kultura batzuetatik, geureari erreparatu gabe. Egoera horrek garamatza, maiz, lehendik ezer ez balego bezala funtzionatzera.



Transmisio egoki batek egoera horiek gainditzea ekarri behar du, euskaldunek izatea euskal kulturaren berri, izatea aurrekoek egin dutenaren berri eta ezagutza hori ere baliatzea, nahi bada hari jarraitzeko edota, nahi bada, beste bide batetik jotzeko, baina ezagutu ondoren.

Kultur transmisioa, bada, garrantzi handikoa da herri baten nortasunari eusteko eta horrek gure herriko kultura eta hezkuntza politiketan oinarri sendoa izan beharko luke. Etxeko edo familiako giroa, hezkuntza, kultur jarduera eta hedabideak dira bide nagusiena transmisio horretarako eta horietan egin behar da lan.

## ★ Gertukoa

Etxea, familia, inguru afektiboa da kultur transmisiorako lehen gunea. Erantzukizunaren parte handi bat dago etxean, bertan irakurri, ikusi, entzuten dugunak direlako, askotan, haur eta gazteen artean lehen kultur erreferenteak. Ingurukoek euskara erabiltzen ez badute, zailago izango da euskaraz egitea haur eta gazteek, eta

etxean ez badugu euskal kulturarako joerarik, urrunagokoa izango da hura belaunaldi berrientzat.

Hezkuntzak euskal kulturarako sarbideetako bat izan behar du eta horrek behar du euskal curriculuma euskal kulturan ardaztuta izatea, eta bideak irekitzea euskal kultur sormena, sortzaileak eta edukiak eskolan integratzeko.

Kultur jarduerak ikusgarritasuna eta aukerak eman behar ditu euskal kultura edonoren eskura egon dadin. Lortu behar dugu euskal kulturaren eskaintza ugaria izatea bazter guztietan. Lortu behar dugu jende anitzaren interesetarako egokituko den eskaintza oso anitza izatea. Lortu behar dugu kalitateko eskaintza izatea. Horrek denak sor dezake ezagutzeko eta jarraitzeko interesa.

## ⋆ Ikusgarritasuna

Hedabideek ere ikusgarritasuna eman behar diote euskal kulturari eta agerikoa da Euskal Herrian erdaraz ari diren hedabide gehienetan, eta gehien jarraitzen direnetan, euskal kulturaren presentzia oso txikia dela. Euskarak eta euskal kulturak hedabideetan bigarren mailako izaera ez izateko zer nolako neurriak behar diren aztertu beharko da berandu baino lehen, aurrera egin nahi badugu.

Gure izaera eta gure etorkizuna ditugu jokoan, euskal izaera indartu nahi bada transmisioa kontuan hartuko duen plana behar dugu, herri erakunde eta gizarte eragileen artean landua eta denen artean garatua.





# La Vuelta a Euskal Herria

Hay muchas formas de conocer un país pero, sin duda, la mejor es recorrerlo. La *Vuelta a Euskal Herria* es una propuesta de Sua Edizioak para realizar un viaje en coche de nueve etapas que nos llevará a cumbres, mares, bosques, desiertos, metrópolis y aldeas recónditas. Una ruta inolvidable para conocer, disfrutar, y, a buen seguro, amar. El libro se publica en sendas ediciones en euskera (*Euskal Herriko Bira*) y castellano.

En total son nueve las etapas que propone esta singular singladura circular en coche. Promedian unos 120 kilómetros de recorrido, hasta sumar algo más de 1.130 kilómetros en total. El autor, el periodista especializado Jordi Bastart, recomienda comenzar en Bilbo y realizar la ruta en el sentido de las agujas del reloj. No obstante, cada cual puede partir desde el punto que elija y, a partir de ahí, disfrutar de cuanto le salga al paso en la carretera.

La costa es, sin duda, el primer protagonista de esta ruta, pues circula a pocos metros del mar durante prácticamente todo el litoral vasco, desde Muskiz a Baiona. En ese tramo se suceden los puertos pesqueros, los acantilados que guardan tesoros geológicos, las playas y los estuarios. Bahías perfectas como las de Plentzia, Donostia o Donibane Lohizune, puertos inesperados como Armintza, Ea o Elantxobe, lugares mágicos como Gaztelugatxe, la actividad pesquera de Ondarroa o Getaria, la belleza de Lekeitio, Pasai Donibane, Hondarribia o Mundaka, el glamour de Biarritz… Naturaleza, cultura, paisaje, historia y gastronomía aúnan fuerzas para cautivarnos mientras avanzamos por esas carreteras costeras.

Una vez finalizado el tramo del litoral, *La Vuelta a Euskal Herria* gira en busca del Pirineo. Primero por la vertiente norte y luego por la sur, recorre sus estribaciones por estrechas carreteras de montaña en busca de algunos de los hitos de la cordillera. Le salen al paso Zugarramurdi y la comarca de Xareta, Baztan, Baigorri, Donibane Garazi, la Selva de Irati y la indómita Santa Grazi antes de descender por Belagua para recorrer








Erronkaribar [valle del Roncal], Zaraitzu [Salazar], Aezkoa, Erroibar…

El siguiente reto lo presenta la Zona Media navarra, donde la ruta primero visita Irunberri [Lumbier] y Zangoza [Sangüesa] y después desciende hasta el borde de las Bardenas para remontar a Gares [Puente la Reina], Lizarra [Estella] y Viana. Tres merindades (Zangoza, Erriberri y Lizarra) repletas de atractivos: el cerco de Artaxoa, el castillo de Erriberri, la foz de Irunberri, las monumentales Lizarra y Viana, valles como Deierri, el parque natural de Urbasa…

Desde Viana, la *La Vuelta a Euskal Herria* se interna en la Rioja Alavesa, visita sus hermosos pueblos y, por supuesto, sus bodegas, y cruza la sierra de Cantabria para, por Kanpezu y el valle de Harana, encaminarse a la Llanada, donde nos esperan Agurain y Gasteiz. El tramo alavés se completa con una salida hasta las salinas de Añana para, tras visitar las espectaculares cascadas de Goiuri y el salto del Nervión, atravesar la histórica comarca de Aiaraldea. Una parada en Artziniega y la ruta se interna en Bizkaia para explorar Enkarterri [Las Encartaciones] y, por la margen izquierda de la ría, regresar a Bilbo.

En su tránsito por los siete territorios de Euskal Herria, la ruta se detiene con especial interés en las capitales, con lo que también da opción para conocer los ámbitos más urbanos del país, desde la vieja Iruñea hasta la pujante Gasteiz, sin olvidar el nuevo Bilbo, el encanto de Donostia y la monumentalidad de Baiona.

El autor del libro, **Jordi Bastart**, es un periodista y fotógrafo especializado en guías de viajes con una acreditada trayectoria. Con Sua Edizioak ya ha publicado otras guías de viaje en coche como *Grand Tour de Catalunya* (2020) o *Rutas para descubrir Aragón* (2019). En el caso de *La Vuelta a Euskal Herria* ha contado con la colaboración del equipo de Sua Edizioak para sumar a su contrastada calidad una mirada desde dentro de la cultura vasca.

Quien tome esta guía en sus manos se encontrará con una ruta que discurre, en su mayor parte, por carreteras secundarias. En los "arcenes" del texto principal, se encontrará con recuadros y destacados que llaman la atención sobre particularidades de cada lugar, bien sean un producto gastronómico, una fiesta, un mirador espectacular, un museo o alguna muestra del patrimonio cultural. Son las tentaciones que nos saldrán al paso y que quizás alarguen más de lo que pensábamos esta *Vuelta a Euskal Herria*. Ondo ibili!

**HEKTOR ORTEGA**
Editor

## NOBEDADEAK



**EL CAMINO DE SANTIAGO. NORTE, PRIMITIVO Y FINISTERRE.**
CUADERNO DEL PEREGRINO
Pepe García
CORDILLERA CANTÁBRICA

La ruta jacobea propuesta aquí engarza distintos Caminos de Santiago. Comienza en Irun, sigue el Camino del Norte hasta Oviedo, donde enlaza con las sendas milenarias del Camino Primitivo hasta Compostela y Finisterre.




**SUEÑOS Y VERDAD**
PIONERAS DE LA AVENTURA
Ricardo Martínez Llorca
DESNIVEL

Este libro recoge perfiles de mujeres que demuestran que se puede hacer real lo que se creía imposible. Se trata de mujeres que imaginaron, desobedecieron, arriesgaron e hicieron de los sueños la verdad de sus días y sus noches.




**EUSKAL HERRIKO ZUHAITZEN GIDA**
Henrique Niño /Calros Silvar
SUA EDIZIOAK

Euskal Herriko zuhaitzen gidaliburuirik osatuenaren hirugarren edizioa kalean dago. Katalogo ilustratu honek ehun espezie dakartza eta hari esker gure oihan, mendi, ibar, kostalde eta ibaiertzetako arbolak ezagutu ahal izango ditugu.




**BIKE LIFE. EN BICI POR EL MUNDO**
Belén Castelló / Tristán Boogard
ANAYA

*Bike Life* relata las aventuras de Tristán y Belén durante sus diversos viajes en bicicleta a traves de Europa, Norteamerica y Asia Central. Es un libro plagado de hermosas fotografías, anécdotas personales y consejos.




**EGUTEGIA / CALENDARIO PIRINEOS 2022**
Xabier Sukuntza
SUA EDIZIOAK

El calendario de la colección Pirineos para el año 2022 ha sido elaborado con fotógrafías de Xabier Sukuntza que, como es habitual, reflejan hermosos paisajes y aspectos de la vida en la cordillera. Un clásico que nunca falta en nuestros hogares.



**GUÍA DE LA ESPAÑA RURAL**
Javier Rico
PLANETA

La España rural existe y tiene siempre mucho que contar, sobre todo en el momento actual. Esta guía ofrece más de cien propuestas organizadas según el calendario para que el viajero pueda inspirarse cada mes del año.



# Coraline

*Coraline* "klasiko" bat da, nahiz eta 2002an argitaratu zen. Gazte zein helduengan arrakasta du, hainbat sari irabazi ditu, eta gaur egun *Coraline* mundu mailako klasiko literario magiko gisa izendatzen da.
**Neil Gaiman** idazle entzutetsuaren *Coraline*ren edizio zaindu eta dotore hau **Aurélie Neyret** ilustratzaile frantses sarituak ilustratu du, konbinazio eder, iradokitzaile eta ikusgarri bat sortuz. Irakurketa patxadatsu eta gozagarri baten alde.

CORALINE
IDAZLEA: Neil Gaiman
ILUSTRATZAILEA: Aurélie Neyret
ITZULTZAILEA: Julen Gabiria
ELKAR




12 urtetik aurrera




10 urtetik aurrera

ASTEBURUA LANDETXEAN
Maribel Aiertza
Alai Zubimendi Idarreta
ELKAR

# Asteburua landetxean

Mendi eta landa gutxi zapaldutako ikasle talde bat Urdaibaiko Zabale landetxera iritsiko da asteburu pasa. Abentura gosez barneratuko dira basoan, baina Eider eta Galder ez dira afalorduan ostatura itzuliko. Piruk errezeloa du kobazulora bidean galdu dela haien arrastoa, eta bila ibiliko dira. Gutxira, Lioren erruz beste abentura sinestezin batean murgilduko dira Santimamiñeko kobazuloan. Abentura, historia eta zientzia fikzioa uztartzen dituen istorio hau adiskidetasun istorio samur bat ere bada.

# TRAKTORETXO

TRAKTORETXO
IDAZLEA: Natalie Quintart
ILUSTRATZAILEA: Philippe Goossens
TTARTTTALO

### Traktoretxo beldur da

Traktoretxo maldan behera joan da aitarekin, baina irrist egin eta lokatzetara erori da.
Eta orain Traktoretxo beldur da, eta ez du aletegitik atera nahi, euria ari duen bitartean.
Baina halako batean, Lilik Traktoretxoren laguntza behar du, berehala gainera...
Istorio polit honetan, Traktoretxok beldurrari aurre egingo dio, bere lagunei laguntzearren.

### Traktoretxo neguan

Negua da, eta Traktoretxori ez zaio negua gustatzen.Traktoretxoren lagun berria, antzara, herrialde beroago batera joan da hegan. Hotz egiten du eta giro grisa dago, zuhaitzak hostoak galtzen ari dira, oso goiz iluntzen du eta Traktoretxori aspergarria egiten zaio baserri barruan egotea. Baina egin al daiteke gauza dibertigarririk neguan?
Neguko istorio samur eta goxo bat, Traktoretxori eta haren lagunei buruzkoa.




2 urtetik aurrera






ARGAZKIA: PAMIELA



**DOROTEA**
Amaia Egidazu
PAMIELA

**Zorioneko da Amaia Egidazu. Berak idatzi eta marraztutako *Dorotea* album ilustratuak irabazi du aurtengo Etxepare saria. Horri esker Pamielak argitaratu berri du durangarraren lehen liburua.**

**Nor da Dorotea?**
Dorotea landa gunean bakarrik bizi den amama ausart eta ekintzaile bat da, eguneroko arazoei irudimen handiz eta kemenez aurre egiten diena. Ez du ipuinetako ohiko amonatxoaren estereotipoa jarraitzen eta horrek, hein batean, berezi bihurtzen du. Askorentzat uste baino pertsona ezagunagoa da gainera.

**Aurtengo Etxepare saria irabazi duzu. Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen dituzula nabarmendu du epaimahaiak. Nolako prozesua izan da?**
Hitzen soinuetan erreparatzeko, errimak bilatzeko, hitz jokoak egiteko eta, azken finean, hizkuntzarekin jolasteko joera daukat. Tarteka, poema edo ipuin laburrak koadernotxo batean idazten ditut denbora-pasa gisa. Dorotearen istorioa, konkretuki, duela pare bat urte idatzi nuen eta, berarekin berriz topo egitean, testua osa zezaketen eszena komiko batzuk irudikatu nituen. Ilustratzen esperientzia handirik ez daukadan arren jolasteko eta esperimentatzeko gogoa neukan, eta album ilustratu bat egitera animatu nintzen.

**Askoren haurtzaroa markatu duten pertsonaia bi agertzen dira ipuinean. Umezaroko ipuin kutunari omenaldia?**
Ahozko tradizioan jatorria daukaten istorioak gustuko ditut orokorrean, eta egia da haurtzaroan entzundako kontakizunek eragin handia daukatela gugan, mundua ulertzen, emozio biziak bizitzen eta arazoen aurrean irtenbideak bilatzen lagun baitiezagukete. Joera handia dago haien bertsio edulkoratuak, gozoak, sortzeko: gaizkilerik, beldurrik, tristurarik, gatazkarik, minik eta heriotzarik gabe; umeei egiazkoa ez den mundu bat erakutsiz eta gehiegi babestuz. Dorotearen kasuan, orain arte kontatu ez den moldaera berri bat izan badaiteke ere, kultura tradizionalaren sinbologiaren indarra aldarrikatzen da moduren baten.
Bestetik, pertsonaia bi hauei egindako keinu txiki horrekin beste irakurketa geruza bat eskeini nahi izan diot ipuinari, irakurle batzuek sorpresaz jasoko baitute *Dorotea*-ren bukaera.

**Ipuinak ilustratu bakarrik ez, ahotsa ere jartzen diezu, ipuin kontalaria ere bazara eta. Dorotea jendaurrean aurkezteko asmorik bai?**
Guztiok daukagu kontalari bat barruan, eta urte askoan seme-alabekin, etxe giroan zein eskolan lanean, istorioak kontatzen aritu naiz. Jendaurrean ere ekin izan diot, eta liluratu egiten nau ipuinen bidez umeekin lortzen den konexioak, beraien aurpegiek, begiradek, ideiek… Beraz, zabalik nago *Dorotea*rekin edonora joateko.

**Orain zer duzu esku artean?**
Hainbat ideia ditut buruan momentuz zirriborroak baino ez direnak: album ilustratu batzuk eta umeentzako poema sorta bat. Egia da Etxepare saria jasotzeak sortzen jarraitzeko bultzada eta ilusioa piztu dizkidala. Niretzako ezezaguna den mundu berri bat ireki zait begien aurrean, eta ikasten jarraitzeko gogotsu nago.

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria





# JUEGOS DE CARTAS,
## siempre a mano

**Atrás, muy atrás quedan los tiempos en los que los juegos de cartas se limitaban a la clásica baraja, bien española, bien francesa. Hace ya mucho que los naipes forman parte de multitud de juegos que proponen todo tipo de pasatiempos, desde el suspense y la aventura hasta los juegos de escape o los que ponen en práctica conocimientos como las matemáticas o la literatura. Las cartas de toda la vida tienen cuerda para rato.**

Pocos hogares habrá en los que falten las cartas. Acompañan a cada generación en sus primeros pasos de vida social y, a menudo, no la abandonan nunca. Si antaño dominaban el mus, la brisca, el tute o cualquiera de los numerosos juegos que la baraja posibilita, hace ya tiempo que las cartas se abrieron a todo tipo de juegos de mesa, tanto para los más pequeños como para adultos. Por ejemplo, la baraja de *Las siete familias* se difundió en Hego Euskal Herria a partir de 1965, cuando la empresa alavesa Heraclio Fournier adaptó un juego inglés (*Happy families*) con gran éxito. En las décadas siguientes niñas y niños jugaron a catetos con la familia bantú, la tirolesa, la esquimal y el resto de la cuadrilla. Hoy sigue siendo todo un clásico y esa línea continúa con nuevos productos adaptados a las realidades sociales actuales, caso de *Familien Karta Jokoa*, aparecido en 2018 de la mano de Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

No obstante, en los últimos años los juegos de cartas se han diversificado y especializado. Los encontramos para edades tan tempranas como las niñas y niños de dos años, destinatarios de propuestas como *Mut Kids Emo* o *Mut Kids Emozioak bikoteka*, que, además de entretener, facilitan a los más pequeños la identificación y expresión de sus emociones. Por su parte, *Minimatch* (3-4 años) utiliza las cartas para fomentar la concentración, rapidez de respuesta y la asociación de ideas.

Lógicamente, según subimos la edad, los juegos se van complicando. *Ilarrak* (6-8 años), por ejemplo, recurre a 123 cartas para organizar unas partidas en las que intervienen guisantes de la mala suerte y hasta ladrones de guisantes. *Halli Galli* (6-8 años) premia la atención y la reacción inmediata al tiempo que trabaja el cálculo matemático. Para hacer pasar un buen rato le bastan 56 cartas de frutas y un timbre en mitad de la mesa. *Polilla Tramposa* (6-8 años), por su parte, invita a buscar

**Los juegos de naipes abarcan todas las edades, desde los dos años hasta los adultos**







## CARTAS Y LITERATURA

En los últimos tiempos se está dando un salto desde la literatura a los juegos, y especialmente a los juegos en los que las cartas desempeñan un papel fundamental. La conocida saga *Futbolísimos*, por ejemplo, escrita por **Roberto Santiago** y con veinte títulos a sus espaldas, creó en 2020 su propio juego de mesa, *Campo 4*, para prolongar con los naipes las vivencias y aventuras de sus libros (+7 años).




Otro tanto ha ocurrido con los *Buscapistas*, los jóvenes detectives de Basketville, siempre a la caza de misterios (+6 años). También la alabada trilogía de literatura infantil *Las aventuras de Tueli* dio paso en 2016 a un rápido juego de cartas para toda la familia (+9 años). Y las aventuras de *Agus y los monstruos* se han plasmado en *Room*, que hará las delicias de los más pequeños (+5 años).

Quizás sea un personaje como Harry Potter el que más veces ha transitado el sendero que va de los libros a los juegos. Cuenta con baraja de naipes para jugar al clásico *Uno*, pero también dispone de otros muchos juegos de renombre como *Trivial*, *Cluedo* o *Lego*, sin olvidar los puzles. Es el caso de otro héroe imperecedero, Asterix, protagonista de una buena serie de juegos de mesa, como *Monopoly Asterix* o *Escape Asterix*. Pero esa ya es otra partida…




